

LARREAREN LAU POEMA

I

HARROBI

(Carrière)

*Dinamita loratu
erlojuzko dinamita
haragi nire dinamita maite*

*sen egunsenti eta babesezko etorki
eguratsak erortzen da elurrezko belaunikan
irakurtzen ikastea bezain hauskorra da
kanpoko orri-koroak izanik*

*erlojuzko dinamita
haragi nire dinamita maite*

entzun beren asto sekretuen gainean heltzen diren uneak.




II

NIRE EROGOAREN LUZAKERI

(Lenteur de ma folie)

*Liliak igortzera ohituriko oin bat
dordoka hitzetik zabalduko hiztegi bat baino astunago
gaua
konpartiturik izatera hasten den sentipen baten lodiera
nire eskuetatik eskekiriko elkarriketa-haria
euria
nire burua gauhontz luzeak destilatuz
dena ehorik
dago
a! eta zenbait isladaren galburuak.*



III

NIRE ITXAROPENAK SORTZEN DITUENA

(Celle qui conçoit mes espoirs)

*abere gaixoa haren mihia ez da inoiz lanbroa barreiatzera helduko
eliza bat bezain osagabe
hutsik eta goibel dago
haren begi hustuak beren iluntasunak baino arinagoak dira
haren mitxeleta bakarra bere esnearen azala da*

IV

URAREN UTOPIA

(Utopie de l'eau)

*itzalaren langabetuak
iturburu beneragarriak
barre itogin zuria
zain kategabeko aldakak*

*nasaiegiak jira-birak
urregorrizko egarriak bere hegoak tolestuz
suziriak barre malkoak arte
uda buztin odolaren ahotsa*

*marroen zentro hutsean
zure gauak nire gaua gainulertzen du
zapai bustiak ximurtzen dira*